

IRAKASGAIK: [Ekonomia eta Ekintzailetza](#)

IKASMAILA: [DBH4](#)

GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK, EKINTZAILETZA-PROIEKTUETAN	CURRICULUMENKO ELEMENTUAK
Batetik, garapen jasangarrirako helburuak ikasteko garrantzia azpimarratu nahi dugu, eta, bestetik, helburuok ekintzailetza-proiektu batean landuko ditugu. Talde kooperatiboen arabera antolatuta, talde kooperatibo bakoitzari garapen jasangarrirako helburu bat esleituko diogu. Ondoren, lanaren plangintzari eta banaketari buruzko dokumentu bat idatzi beharko dute, hau da, proiektua eta bideoa garatzeko beharko duten informazioa biltzeko dokumentu bat. Hori egin bitartean, honako hauek baloratuko dira: erabilera egokia, ekonomiari buruzko ezagutzak, bideoaren originaltasuna, bideoa nola egin den, irtenbideen egokitasuna, taldekako lana eta gainerako dokumentuak. Bideoa amaierako produktua izanen da, eta bi minutu iraunen du. Hiru pertsonako taldeetan arituko dira, eta honako hauek sustatuko dira: taldeko lana, jardueren plangintza, sormena, ingurumenaren inplikazioa. Horrez gain, kontuan hartuko dira eragile sozialak, eta ikasgaiaren lortutako ekonomiari buruzko ezagutzak ere erabiliko dituzte. Bideoan honako hauek azaldu beharko dira: garapen jasangarrirako helburu bat, ikasgaiaren edukietako bati lotuta, eta haren garrantzia azaltzea; adibide zehatz bat; ikasleei nola eragiten dien; garatzen ari den ekintzailetza-proiektuarekin duen lotura; eta proiektu horrek berekin ekarriko duen hobekuntza bat.	FUNTSEZKO GAITASUNAK / DESKRIBATZAILEAK: KD1, KD2, KPSII1, KPSII3, KPSII5, HK3, HK4, EK1, EK2, EK3
	BERARIAZKO GAITASUNAK: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 8
	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK: 1.2, 1.3; 2.1, 2.2, 2.3; 3.1, 3.2; 4.1; 5.2; 6.1, 6.4
	OINARRIZKO JAKINTZAK: A. (A1, A2) B. (B1, B2, B3) C. (C2.2) D. (D2, D7)